Lan-eskaintzen erregistroa 2025eko urtarrilean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2025eko urtarrilan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.268 eskaintza erregistratu dira, abenduan baino 508 gehiago eta 2024ko urtarrilean baino 78 gutxiago

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2025eko urtarrilean 196 eskaintza erregistratu dira Araban, 468 Bizkaian eta 604 Gipuzkoan. Eskaintzen % 15,5 Arabako BAUetan erregistratu dira, % 36,9 Bizkaian eta % 47,6 Gipuzkoan.



Araban, hilabete honetan, eskaintzak % 28,9 igo dira (44 eskaintza gehiago); Gipuzkoan, % 117,3 (326 eskaintza gehiago); eta, Bizkaian, igoera % 41,8koa izan da eta 138 eskaintza gehiago.

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, eskaintzek behera egin dute hiru lurraldeetan. Araban, % 8 (-17 eskaintza); Gipuzkoan, 6 eskaintza (-%1); eta, azkenik, Bizkaian, 55 eskaintza gutxiago erregistratu dira (-%10,5).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila zientzia-teknikariena da: 221 eskaintza, eskaintza guztien % 17,4. Oso gertutik jarraitzen dio ez-kualifikatuen profilak, 220 eskaintzarekin eta % 17,3ko pisuarekin. Zerbitzuen, laguntza-teknikarien eta industriaren okupazio-profilek ere portzentaizko pisu esanguratsua dute, % 10etik gora, erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoak % 17,1, % 14,7 eta % 14,3 izanik, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektoreko profilekoak eta zuzendaritzakoak dira, 34 eta 11 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, profil guztien eskaintzak gehitu dira. Balio absolutuetan gehien igo direnak industriaren eskaintzak izan dira, 108 eskaintza gehiagorekin eta % 145,6ko igoerarekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena primarioen eskaintzetan izan da, % 1.600 igo baitira (+32 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, teknikari zientifikoen eskaintzak igo dira gehien, balio absolutuetan, 13 eskaintza gehiagorekin eta % 6,3ko igoerarekin. Aitzitik, termino absolutuetan zein erlatiboetan, laguntza-teknikarien profilean jaitsi da gehien, -60 eskaintzarekin eta % 24,4ko murrizketarekin.

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 42,4 mugagabeak izan dira, % 57,1 aldi baterakoak eta gainerako % 0,5 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta; hala ere, hilabete horretan ia 4 puntu egin du behera abenduarekin alderatuta, baina ia 10 puntu igo da 2024ko urtarrilarekin alderatuta. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera berresten dute.



Mugagabeko eskaintzak 538 izan dira, aurreko hilean baino 186 gehiago (% 252,8 gehiago). Aldi baterako eskaintzak 317 gehiago izan dira, guztira 317; balio erlatiboetan igoera % 77,9koa izan da. Azkenik, merkataritza-izaerako 5 eskaintza izan dira urtarrilean, abenduan baino 5 gehiago

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 45 gehiago izan dira (% 9,1eko igoera); aldi baterako kontratuen eskaintzak 119 gutxiago izan dira, % 14,1 gutxiago. Azkenik, 4 merkataritza-eskaintza gutxiago erregistratu dira urteko erreferentzian (6 eskaintza guztira).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

Urtarrilean erregistratutako eskaintzen % 78,6k 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; guztira 996 eskaintza. Erregistratutako eskaintzen % 12k (152 guztira) 6-12 hilabeteko esperientzia behar dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia-aldi handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 1,8ko pisuarekin (23 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 4 eskaintza eta % 0,3ko pisua.



Hileko bilakaeran, gora egin dute eskaintzek tarte guztietan, 5 urte baino gehiago nahi dutenen kasuan izan ezik, 5 eskaintzatan jaitsi baitira (-%55,6). Igoerarik handiena, balio absolutuetan zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete bitartean behar dituzten eskaintzetan izan da, 435 eskaintza gehiagorekin eta % 77,5eko igoera erlatiboarekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, eskaintza guztiak jaitsi dira, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan ezik, horiek iazko kopurua errepikatu baitute (152 eskaintza). Guztizko balioetan, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-tartearen beherakada nabarmendu behar da, 49 eskaintza gutxiago egin baitira (-%4,7); balio erlatiboetan, 3 eta 5 urte bitartean behar dituzten eskaintzen beherakada nabarmendu behar da, % 34,3 jaitsi baitira (-12 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2025eko urtarrilean

Urtarrilean, erregistratutako lan-eskaintzek, batez beste, 6 hilabeteko esperientzia eskatzen zuten.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lanaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan, eskaintzen % 12,9k bakarrik aipaitzen baitu lanaldia (1.268 eskaintzatik 163k soilik). 163 eskaintza horietatik 130 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 33ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 68 gehiago izan dira abenduarekin alderatuz, hau da, % 109,7ko igoera izan da; lanaldi partzialeko eskaintzak 3 gutxiago izan dira, eta jaitsiera erlatiboa % 8,3koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak 5 eskaintza gehiago izan dira (% 4 gehiago). Lanaldi partzialeko eskaintzek 4 eskaintza gehiago izan dituzte, eta igoera erlatiboa % 13,8koa izan da

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 14 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 6 gehiago eta aurreko urtean baino 7 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau ere ez da beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 84,3k ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila; erregistratutako 1.268 eskaintzetatik 199k bakarrik zehaztu dute gutxieneko maila akademikoa lanpostuko zereginak bete ahal izateko.



199 eskaintza horietatik 74k unibertsitate-ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila hori izan da gehien eskatu dena; ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, urtarrilean 72 eskaintza erregistratu baitziren. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilergoko ikasketen profilak, 44 eta 9 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko konparaketan, eskaintzek gora egin dute ikasketa-profil guztietan, batxilergoko ikasketa-profiletan izan ezik, 3 eskaintzatan jaitsi baitira. Igoerarik handiena, bai balio absolutuetan bai erlatiboetan, LHko ikasketen eskaintzetan gertatu da, 36 eskaintza gehiagorekin eta % 100eko igoerarekin.

2024ko urtarrilarekin alderatuta, LHko ikasketak behar dituzten eskaintzak jaitsi dira gehien maila absolutuan zein erlatiboan (28 eskaintza gutxiago, % 28ko jaitsiera); aitzitik, unibertsitate-ikasketen profilean gehitu dira gehien eskaintzak, 16 eskaintza gehiagorekin (% 27,6ko igoera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera osasungintza eta gizarte zerbitzuena da, guztira 190 eskaintzarekin, hileko eskaintza guztien % 15. Ondoren, administrazio-jarduerak eta industria manufaktura daude, 181 eta 165 eskaintzarekin (% 14,2 eta % 13, hurrenez hurren).

Aurreko hilabetearekin alderatuta, jarduera gehienetan eskaintzek gora egin dute. Behera egin duen jarduera bakarra administrazio publikoa da, 312 eskaintza gutxiagorekin (-%39,7). Nabarmentzekoa da industriaren eskaintzek balio absolutuetan izan duten igoera (+109 eskaintza, +%194,6); jarraian, osasun-jardueren eskaintzek izan duten igoera, 105 eskaintza gehiagorekin (+%123,5).

Urte arteko saldoari dagokionez, jarduera gehienetan eskaintzak jaitsi egin dira. Nabarmentzekoa da profesional zientifikoen eskaintzek balio absolutuetan izan duten beherakada (-24 eskaintza, -% 20,7); balio erlatiboetan, garraio-eskaintzek izan dute beherakada handiena (-% 25, -10 eskaintza). Aitzitik, igoera handienak osasun-jardueretan eta beste zerbitzu batzuetan izan dira, biek 11 eskaintza gehiagorekin.